



# GERMANIAR ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOARI BURUZ



*2023ko abuztua, Euskal Herria*

# AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
ESTATU DEMOKRATIKO-ANTIFAXISTAREN ERAKETA.....	4
Postdameko akordioak.....	4
Bloke Demokratikoaren sorkuntza.....	5
Nekazal erreforma.....	5
Burgesia inperialistaren ezabapena.....	6
Germaniaren zatiketa.....	6
DDRren eraketa.....	7
SOZIALISMOAREN OINARRI EKONOMIKOAREN ERAIKUNTZA.....	9
Lehen bosturteko plana.....	9
Landa-eremuaren kolektibizazioa.....	10
DEFENTSARAKO NEURRIEN EZARPENA.....	11
Varsoviako Ituna.....	11
Berlineko Harresia.....	12
KAPITALISMOAREN BERREZARPEN PROZESUA.....	14
Merkatu-“sozialismoa”.....	14
Nazioarteko lanaren banaketa “sozialista”.....	15
Gizarte “sozialista aurreratua”.....	15
DDRren LORPEN SOZIALAK.....	16
Politika.....	16
Ekonomia.....	16
Lana.....	16
Etxebizitza.....	17
Hezkuntza.....	17
Zientzia.....	18
Osasungintza.....	18
Kultura.....	19
Kirola.....	19
Emakumea.....	20
Sexualitatea.....	20
Internazionalismoa.....	21
KONTRAIRAULTZA ETA SUNTSIPENA.....	22
SEDren likidazioa.....	22
Harresiaren erorketa.....	22
DDRren anexioa.....	23
Germania inperialistaren mendekua.....	23

# SARRERA

*“Ekonomia komunistaren legerik garrantzitsuena gizarteko kide bakoitzaren ondasun material eta kulturalen beharra asetzea da, ekoizpen- eta kultura-mailak ahalbidetzen dituen aukera maximoen arabera. Helburu hori lortzeko, osasuntsuak eta normalak diren heldu guztiei lan egiteko betebeharra ezarri behar zaie, sexu-bereizkeriarik gabe. Hau baliagarria eta sozialki beharrezko den lan ororen berdintasuna aitortzen duen gizarte-antolakunde batean baino ezin da lortu, amaren jarduera gizarte-prestazio gisa ere balioesten duena, bere kideen garapen-baldintzak jaiotzetik aldeztetik ipiniko duen antolakundea, lan sozial askearen esparruaren baitan, eta ekoizpen-ahalmenen garapen kontziente maximoa sustatuko duena.”*

*Emakumezkoen mugimendu komunistarentzako gidalerroak (1920) – Clara Zetkin*

Marx eta Engels-ek Germanian Sozialismo Zientifikoa sortu eta Manifestu Komunista argitaratu zutenetik, klase-borroka eta iraultza saiakera ugari egon ziren bertan Sozialismoak garaitu arte, eta ez zen beraiek aurreikusi bezala izan, inondik inora.

Propaganda burges-inperialistak ekialdeko Germania goibel eta aspergarria, “herrialdea erdibitzen” zuen harresi bat zuena, non “ehundaka pertsona erail” zituzten, eta polizia sekretuak “hiritar guztien bizitza” zelatatzen zuen “erregimen totalitario” gisa aurkezten digu, ultraezkertiarrek ere hedatzen duten propaganda. Beste aldean, kutsu folkloriko eta nostalgikoarekin, honen defentsa akritikoa egiten dutenak daude, bere benetako izaera agerian jartzen ez dutenak.

Horregatik hurrengo lanean Germaniar Errepublika Demokratikoaren ibilbide historikoaren azterketa egingo dugu, bere sorreratik honen suntsipenera arte.

# ESTATU DEMOKRATIKO-ANTIFAXISTAREN ERAKETA

1945ko maiatzean azken guduak eman ziren erortzekotan zegoen germaniar 'Reich' inperialistaren hiriburuan, Berlinen. Maiatzaren 8an Ejertzito naziak Errepublika Sozialista Sobietikoen Batasuneko Behargin eta Nekazarien Ejertzito Gorriaren aurrean amore eman eta errendizioa sinatu zuen. 6 aste geroago aliatu inperialisten tropak iritsi ziren bertara. Orduan Germania 4 okupazio-zonaldeetan banatu zuten (AEB, Erresuma Batua, Frantzia eta Sobiet-Batasuna), non agintea militarren esku zegoen. Berlin ere 4 zatitan banatu zuten, hiriburua ESSBren okupazio-zonaldearen erdian, Germaniako ekialdean, bazegoen ere.

Herrialdea txikituta zegoen, gosea eta gaixotasunak zabaltzen ziren, hiriak hondakin multzo bat ziren eta biztanlerian etsipena zen nagusi. Erresistentzia antifaxistako militanteak klandestinitatetik, espetxe eta kontzentrazio-esparruetatik ateratzen hasi ziren. Komunistak, sozialdemokratak eta hitlerianoen aurkari burgesak botere berria eratzeko batzordeetan biltzen hasi ziren. Germaniako Alderdi Komunista (KPD germanieraz) izan zen aro lazgarri honetatik indartsuen atera zen alderdia, izen oneko militante asko galdu bazituen ere (Ernst Thälmann adibidez).

## Postdameko akordioak

1945ko uztailean Sobiet-Batasuneko gobernuburua, Stalin, aliatu inperialista anglo-yankien gobernuburuekin bildu zen Postdamen. Negoziazio hauetan, ordezkaritza sobietikoak pazientzia eta irmotasun handiz eramanak, Germania bakar eta batua, demokratizatua, desnazifikatua, desmilitarizatua eta desmonopolizatua sortzea adostu zen.

Nazioarteko zuzenbidearen arabera ziren akordio hauetan Germaniaren eta Poloniaren arteko muga aldatzea erabaki zen, Oder-Neisse ibaien lerroa. Honen ondorioz ekialdeko Germaniak 100.000 km<sup>2</sup>-ko lurraldea galdu zuen (108.000 km<sup>2</sup>-rekin geratu zen).

Europako herrialdeetatik (Txekoslovakia, Hungaria eta Polonia batez ere) kanporatutako germaniarrei aterpea ematea ere erabaki zen. Hauetatik %40 (4,3 milioi inguru) okupazio-zonalde sobietikoari esleitu zitzaizkion. Honen ondorioz, ekialdeko Germaniako 4 biztanletik 1 deserriraturakoa zen (17 milioi biztanle zituen).

Gainera, ekialdeko Germanian industria gutxiago zegoen (guztiaren %30) eta suntsiketa handiena pairatu zuen gerran (%45), mendebaldean suntsipena askoz apalgora izan zen bitartean (%20koa). Desberdintasun hauen ondorioz ekialdean lehengaien falta zuten eta industria astuna falta zitzaien.

Adostutako beste puntu bat ordaindu beharreko gerra-konponketak izan zen. Zatiirik handiena ekialdeko Germaniari egokitu zitzaion, Sobiet-Batasuna izan baitzen gerrako kalte larrienak pairatu zituenak. Horregatik okupazio-zonalde sobietikoan 600 gerra-fabrika desmuntatu eta Poloniara eta ESSBra lekualdatu zituzten. 200 inguru Germanian utzi zituzten, baina Estatu sobietikoaren jabetzan (hauek 1954an langile germaniarrei bueltatu zitzaizkien).

Kontuan izan behar da germaniar herriak ez zuela bere kabuz askapena lortu ezta ekarpen handirik egin ere, baina bazeukan faxismoaren eta gerraren erruaren parte bat. KPD izan zen okupazio-

zonalde guztietan hau azaltzen saiatu zen alderdi bakarra, oraindik txobinismoaz eta antikomunismoaz itsututa zegoen nazio batean.

Germania mendebaldeko politikari burgesek hasieratik ukatu zituzten Postdameko akordioak, 1937ko mugak aldarrikatuz eta erreparazioen aurka agertuz, akordio hauek oztopoa baitziren indar atzerakoiek Germania inperialista berreraikitzeke.

Mendebaldeko potentzia inperialistek, akordioak ezartzeko prestutasuna agertu bazuten ere, hasieran erdizka egin zuten eta azkenean guztiz baztertu zituzten. Honek berrikuntza demokratiko-antifaxista eten eta herrialdearen banaketaren arriskua ekarri zuen.

## **Bloke Demokratikoaren sorkuntza**

1945ean, komunisten ekimenez, KPDaren, alderdi sozialdemokrataren (SPD germanieraz) eta berriki eratutako alderdi demokratiko burgesen artean, kristaua (CDU germanieraz) eta liberala (LDPD germanieraz), 'Alderdi Demokratiko-Antifaxisten Blokea' (edo Bloke Demokratikoa) sortu zen fronte herrikoi gisa okupazio-zonalde sobietikoan.

1946an, ekintza-batasunaren eta diktadura faxistaren esperientzien ondorioz, KPD eta SPDn langileriaren zatiketa gainditu behar zela argi geratu zen. Horregatik Germaniako Alderdi Sozialista Bateratua (SED germanieraz) sortu zen bi alderdiak batuz. Hau alderdi bakoitzeko Biltzarretan egindako erreferendumen bidez erabaki zen. Bere lehen Biltzarrean, 620.000 komunista eta 680.000 sozialdemokrata ordezkatzeko zuten ordezkariak osatutakoa, SEDk marxismo-leninismoaren printzipioei eta internazionalismo proletarioari atxiki zen.

1948an sortutako alderdi burges ttipi demokratikoak, nekazariena (DBD germanieraz) eta nazionalista (NDPD germanieraz), Blokeratu ziren baita ere. Aurrerago sindikatuen konfederazioa (FDGB germanieraz), gazteriaren antolakundea (FDJ germanieraz), emakumeen antolakundea (DFD germanieraz) eta beste masa-antolakunde batzuk gehitu zitzaizkion.

Bloke Demokratikoari esker eraldaketa iraultzaileen aurka agertzen ziren alderdi demokratiko burgesetako politikari atzerakoiak masetatik isolatuta geratzen ziren eta haien karguetatik kentzen zituzten.

Potentzia inperialistek okupatutako mendebaldean, ordea, KPD debekatua izan zen 1945ean. Orduan Alderdi Komunista Germaniarra sortu zen (1956an berriz ere legez kanpo utziko zuten eta 1968 arte ez zuten berriro legezkatuko). Potentzia inperialistek germaniar burgesia monopolistarekin aliatu eta politikari burges atzerakoiak eta eskuineko buruzagi sozialdemokratak babestu zituzten, demagogia antikomunistako kanpaina bat abiaraziz. Era honetan, herri langilearen batasunaren aldeko militanteak kanporatu zituzten eta SEDren eta Bloke Demokratikoaren sorkuntza ekidin zuten.

## **Nekazal erreforma**

1945eko irailean, okupazio-zonalde sobietikoan, KPD eta SPDak, alderdi demokratiko burgesen ordezkari batzuen babesarekin, nekazal erreforma aurrera eramatea erabaki zuten, erreakzioaren botere ekonomiko-politiko apurtzeko eta landaren egoera penagarria hobetzeko. Erreforma honek

7.000 'junker'-en (lurjabe handi prusiarrak), nazien eta gerra-kriminalen lurak, 100 hektarea baino gehiagokoak (Elizarenak ez), kalte-ordainik gabe desjabetuko zituen, hauek nekazarien artean banatuz.

Honetarako nekazal erreformaren batzordeak antolatu zituzten, 50.000 kidez osatutakoak: hirietako behargin industrialak (10.000 baino gehiago), landa-eremuko langileak eta nekazari txiroak. Hauetatik 12.500 KPDkoak ziren, 9.000 SPDkoak eta 1.000 inguru CDU eta LDPDkoak. Gehiengoa, 30.000 inguru, alderdikidetzarik gabekoak ziren.

2,2 milioi hektarea 120.000 landa-eremuko langileen artean, lur nahikorik ez zuten 165.000 nekazari txiroen artean eta lurren heren bat 91.000 deserriratutakoen artean banatu ziren. Onibar berriak 5 eta 20 hektarea bitartekoak ziren. Era honetan nekazari ertaina gehiengoa bilakatu zen landa-eremuan.

Lurren heren bat inguru Estatuaren edo nekazarien masa-antolakundearen esku geratu zen, non aurrerago makineria alokatzeko guneak eta herri-etxaldeak sortuko ziren.

Aipagarria da lurak ez zirela nazionalizatu, baizik eta nekazariei jaraunsgarria zen jabetzan eman zitzaiela, baina ezin zutena saldu. Gainera, landa-eremuan klase-desberdintasunak mantendu ziren nekazarien artean eta aberatsak haien nagusitasunaz baliatzen ziren.

Germania mendebaldean ez zen inolako lurren desjabetze ezta banaketarik gauzatu.

## **Burgesia inperialistaren ezabapena**

Burgesia inperialista germaniarra, Kapital monopolista eta finantzarioa, faxismoaren eta gerraren arduradun nagusia izan zen. Horregatik, 1945ean aginte militar sobietikoak Estatu naziaren jabetzak konfiskatu eta bankuak itxi zituen bere okupazio-zonaldean.

1946an erreferenduma egin zen Saxoniako eskualdean. Honetan nazien eta gerra-kriminalen jabetzak kalte-ordainik gabe desjabetzea erabaki zen %77,62ko babesarekin. Hau oinarri hartuta, 1948 arte ekoizpen industrialaren %40 zuten enpresak nazionalizatu zituzten (AEG, Siemens, Flick, IG-Farben...), herriaren jabetza bihurtzeko asmoz. Honela burgesia handia klase gisa ezabatua izan zen.

Mendebaldean ere mota honetako erreferenduma egin zen Hesse eskualdean, eta nahiz eta baiezkoa gailendu (%72), potentzia inperialista okupatzaileek hau aurrera eramatea debekatu zuten. Are gehiago, ekialdean desjabetutako oligarkei haien aberastasuna berreskuratzen lagundu zieten (Flick kasua adibidez). Era honetan, faxismoaren, inperialismoaren eta militarismoaren oinarri sozio-ekonomikoa ezabatzea ekidin zuten.

## **Germaniaren zatiketa**

1947. urtean mendebaldeko potentzia inperialistek haien okupazio-zonaldeak 'Marshall Planaren' barnean sartuko zirela iragarri zuten, Alemania AEBren menpeko potentzia inperialista gisa berrezartzea ahalbidetuko zuena. Hurrengo urtean, 1948an, hauek AEBen zuzendaritzapean bateratu zituzten eta blokeo ekonomikoa ezarri zioten okupazio-zonalde sobietikoari honen ekonomia kaltetzeko asmoz.

Hau eta gero Germaniako mendebaldean Estatu berri baten sorkuntza iragarri zuten, Postdameko akordioak hautsiz. Honetarako Estatu naziaren burokrazia osotasunean erabili zuten.

Hilabete berean, moneta-erreforma burutu zuten, germaniar monopolioei ikaragarritzko irabaziak eman zizkionak. Honek arazo larriak sortu zituen Berlinen batez ere, mendebaldean eta ekialdean moneta desberdina erabiltzen hasi baitziren (mendebaldekoak 4 aldiz gehiago balio zuen) eta hiria bitan banatuta geratu zen. Halere, bazegoen Berlin mendebaldean lan egin eta ekialdean bizi zen jendea (100.000 inguru), hurrengo urteetan sekulako galera ekonomikoak sortu zituenak.

1949an Germaniako Errepublika Federalaren (BRD germanieraz) Konstituzioa onartu zen, zeinaren elaborazioan biztanleriak ez zuen parte hartu. Era honetan, burgesia germaniarrak bere nazioari traizioa burutu zuen bere klase-interesak honen batasunaren aurretik jarritz, beldurra baitzion Estatu bakar batean langileria bateratuari aurre egiteari.

BRDean komunisten aurkako errepresioa zabaldu zen, lanpostu publiko bat izatea debekatu zituzten (gaur egun mantentzen den legea) eta milaka espetxeratu zituzten (1951 eta 1968 artean bakarrik 100.000 epaiketa baino gehiago egin ziren).

## **DDRren sorrera**

1945an desnazifikazioa aurrera eramateko Estatu-aparatu berria eratzen hasi ziren okupazio-zonalde sobietikoan, Ejertzito Gorriaren komandanteburuaren laguntzaz. Honek karguak izendatzen zituen Bloke Demokratikoaren alderdietako kideak hautatuz, baina hiritar independenteak ere aukeratzen zituen. Era honetan funtzionariotza, epailetza eta polizia berria eraiki zen klase-kontzientzia zuten langileetan oinarrituz. Hasieran zailtasunak egon ziren, formakuntza berezia jasoz gainditu ahal izan zirenak.

Hezkuntza-sistema ere berritu behar izan zen: hezkuntza estatala ziurtatzeaz gain, erregimen nazian zeuden ia irakasle guztiak kanporatu zituzten eta berriak, antifaxistak, sartu. Unibertsitateetan ere antzekoa gertatu zen, eta beharginen seme-alabak sartzeko baldintzak jartzen hasi ziren.

Kontuan izan behar da kanporaketa hauen ondorioz nazi ohi asko ekoizpen materialean lan egitera igaro zirela, beren ideia atzerakoiak eta Sozialismoari gorrotoa mantenduz.

1946an lehen udal-, barruti- eta eskualde-hauteskundeak egin ziren, eta guztietan SED izan zen boto gehien atera zuen alderdia. Eskualdeetako ministroetatik 21 SEDkoak ziren, 9 LDPDkoak, 8 CDUkoak eta 1ek ez zuen alderdikidetzarik.

1947an, SEDren ekimenez, Germaniar Biltzarre Herrikoa sortu zen, germaniar Estatu bakarraren eta bake justuaren alde borrokatzeko. 1948an, honek plebiszitua eskatu zuen hau erabakitzeko eta ekialdeko 14,7 milioi hautesleen babesla lortu zuen. Baita mendebaldeko 1,5 milioirena ere, mendebaldeko potentzia inperialistek debekatu zuten arren. Hala eta guztiz ere, potentzia inperialista okupatzaileek ez zuten hau egitea onartu.

1948an, inperialismoaren eta barneko kontrairaultzaileen mehatxuen aurrean, mugen zaintza eta Polizia Herrikoa indartu behar izan ziren langileriaren lorpenak defendatzeko.

1949an, BRDren sorkuntzaren aurrean, SED Sobiet-Batasuneko Alderdi Komunistarekin bildu zen eta ondoren Germaniar Biltzarre Herrikoia Bloke Demokratikoaren ordezkariekin biltzarre berezi bat deitzeko. Honetan, bozka eskubidea zutenen 2/3en bozetan oinarritutakoa, Germania ekialdeko Konstituzioa onartu zen, aurreko hilabeteetan biztanleriak eztabaidatu zuena.

Honela jaio zen Germaniar Errepublika Demokratikoa (DDR germanieraz), behargin eta nekazarien Estatu sozialista gisa. Aginte militar sobietikoak bere funtzioak honi pasa zizkion, eta kontrolerako batzordea sortu zen, Postdameko akordioak betetzen zirela ziurtatzeko. Aldi berean, Fronte Nazionala eratu zen Bloke Demokratikoan oinarrituz, zeinari milaka hiritar independente batu zitzaizkion. Ganbera Herrikoiak bere lehen Gobernu legeztatu zuen: 8 ministro SEDkoak ziren, 4 CDUkoak, 3 LDPDkoak, 1 NDPDkoa, 1 DBDkoa eta beste bat alderdirik gabekoa.

DDRk, ESSBren babesarekin, behin eta berriz eskaini zion BRDri Estatu batua eratzea, Postdameko akordioetan oinarrituta, baina honek uko egin zion. 50. hamarkadaren amaieran konfederazioa proposatzera igaro ziren, emaitza berberarekin. Azkenik, 1963tik aurrera sistema sozial desberdinak zituzten Estaturen arteko elkarbizitza baketsua defendatzera igaro ziren.

DDR sortu zenean Eremu Sozialistako Estatuak bakarrik aintzatetsi zuten (Sobiet-Batasuna, Albania, Bulgaria, Errumania, Hungaria, Polonia, Txekoslovakia, Txina, Vietnam, Korea eta azkenik Mongolia). Gainera, NATOren babesarekin BRDk 'Hallstein doktrina' (nazi ohia eta Estatuko idazkari zena) ezarri zuen, blokeo diplomatiko moduko bat, zeinaren arabera DDR aintzatesten zuen Estatu ororekin harreman diplomatikoak hautsiko zituen. 60ko hamarkadan Estatu burges dekoloniarrek DDR aintzatesten hasi ziren (Egipto, Siria, Irak, Argelia... eta Asia eta Afrikako beste batzuk), baina ez zen izan 70eko hamarkadara arte mendebaldeko Estatu inperialistek aintzatetsi zutela, eta ez zuen Nazio Batuen Erakundean eserlekurik izan 1973 arte.



# SOZIALISMOAREN OINARRI EKONOMIKOAREN ERAIKUNTZA

1948rako nazionalizatutako enpresen zuzendarien gehiengoa beharginak ziren, eta hasierako zailtasunak gaindituz sektore hau indartzea lortu zen. Hauek hobeto zuzentzeko, enpresen elkartzeak osatzen hasi ziren. Baina oraindik bazegoen kapitalismo pribatuaren sektore oso handi bat, baita nekazarien eta artisauen ekoizpen txikia ere.

Horregatik aginte militar sobietikoak sortutako Germaniar Batzorde Ekonomikoak, gehienbat hautetsitako alderdietako eta masa-antolakundeetako ordezkariez osatutakoa, 1949-1950 bitarterako biurteko plana diseinatu zuen Estatuko jabetzaren sektorea nagusi bilakatzeko, batez ere industrian. ESSBrekin eta Errepublika Herrikoiekin sinatutako merkataritza-hitzarmenek plan hau betetzea ziurtatu zuten. 1950ean DDR 'Elkarrekiko Laguntza Ekonomikoaren Batzordean' (COMECON ingeleraz) sartu zen.

## Lehen bosturteko plana

1950ean SEDk 1951-1955 tarterako plan ekonomikoa proposatu zuen, gerora Ganbera Herrikoiak onartu zuena, aldaketa batzuekin. Honen helburua sektore publikotik abiatuz Sozialismoren eraikuntzari ekitea zen, kapitalismoak eta herrialdearen zatiketak oinordetzan utzitako desproporzio ekonomikoak gaindituz.

Honela lehen bosturteko plana ezarri zen (Errepublika Herrikoiekin gehienak baino beranduago) industria astunari eta lehengaien ekoizpenari lehentasuna emanez. Halere, lehengaien beharra izaten jarraitu zuten, makineria eta produktu amaituak esportatzera behartzen zienak. Urte hauetan jada DDRk kanpo-merkataritzaren %70 baino gehiago Estatu sozialistekin egiten zuen, batez ere ESSBrekin.

Oraindik existitzen zen kapitalismo pribatuaren sektoreari dagokionez, kontratuen bidez planifikaziora batu nahi izan zen, berau mugatzeko eta herriaren jabetzako industriaren garapena bermatzeko.

1953. urtean, Stalin-en heriotza eta gero, ESSBean Khrustxov-ek, Zhukov mariskalaren laguntzaz, Estatu-kolpea eman zuen Beria atxilotuz (gerora fusilatuko zuen) eta bere burua SBAKren buruzagi gisa ipiniz. Honen helburua ESSBean Sozialismoaren eraikuntza galgatzea eta kapitalismoaren berrezarpen-prozesua abiaraztea zen, honetarako "desestalinizazioa" aurrera eramanez behar izan zuelarik. Orduan berrikustzaile eskuindarrek Eremu Sozialista osoan ildo hau inposatzeari ekin zioten.

DDRn burokraten arteko jokoak hasi ziren: SEDko zuzendaritzako talde batek (zeinen artean Estatu-Seguratasuneko ministroa zegoen) Walter Ulbrich, 1950tik Idazkari Orokor zena, "estalinista" izateaz salatu zuen. Baina honek talde hau "Berriaren aldeko izatea" leporatuz haiek kanporatzea eta bere postuan mantentzea lortu zuen.

Hala eta guztiz ere, lehen bosturteko planak ez zuen aldaketarik jasan.

## **Landa-eremuaren kolektibizazioa**

1952. urtean lehen nekazal kooperatibak sortu ziren, kide asko SEDkoak izanez. Nekazari gehienek jarrera hauen aurrean ezkorra izan zen, eta nekazari aberatsena etsaitasunezkoa. Horregatik Estatuak eta hiriko behargin-klaseak nekazari kooperatibistak sostengatu zituzten, landa-eremura bolondresak bidaliz. Laguntza sobietikoarekin, makineria eta traktoreen guneak sortu zituzten baita ere. Polizia Herrikoia lehentasunezko egitekoa izan zen kooperatibak sabotajeaz babestea.

Denbora luzean konbentzimendu lana egin eta borondatezko eranstea errespetatuz, azkenean nekazari gehienak kooperatibetan batzea lortu zen. 1955 eta 1957 artean 544 nekazal kooperatiba sortu ziren, baina 1958an 3.000 inguru sortu ziren. 1960an, alderdietako eta masa-antolakundeetako kideen eta azken banakako nekazarien arteko eztabaida luzeen eta batzuetan gogorren ondoren, ia guztiak (milioi 1 inguru) kooperatibizatzea lortu zen. Kooperatibek lur erabilgarriaren %85 landatzen zuten.

Kolektibizazio prozesu hau industria garatuko herrialde baten baldintzetan eman zen, teknika berriak erabiltzea ahalbidetu zuenak. Nekazarien %90 goi-mailako ikasketak zituen, maisuak edo tekniko espezializatuak ziren.

Aipatu beharra dago kolektibizazio hau nekazari aberatsak desjabetu gabe egin zela. Are gehiago, 1954tik aurrera hauetako batzuei kooperatibetan sartzea ahalbidetu zieten.

## DEFENTSARAKO NEURRIEN EZARPENA

50. hamarkadan BRDean “X Eguna” prestatzen hasi ziren, hau da, DDR xurgatu eta kapitalismoa berrezartzeko plana. Horretarako mendebaldeko Berlinetik eta BRDetik iristen ziren hedabideak erabili zituzten, intoxikazio-kanpaina txobinista eta antikomunistak abiarazteko eta DDRn zeuden ale atzerakoiez osatutako talde kontrairaultzaileak sustatzeko, gehienak nazi ohiez zuzendutakoak.

1953ko ekainean, greba batzuetaz baliatuz, talde kontrairaultzaile hauek, mendebaldeko Berlinetik joandako agente inperialisten laguntzaz, Estatu-kolpe saiakera egin zuten. Estatuaren eraikinetan sartu eta SEDko kideak eta aurre egin zieten behargin kontzienteak erail zituzten. ESSBren tropei esker DDRko autoritateek matxinada, ordura arteko erasorik larriena, zanpatu ahal izan zuten.

Hau eta gero Behargin Klasearen Borroka Taldeak sortu ziren DDRn, 400.000 miliziano armatu izatera iritsi zirenak.

1956. urteko udazkenean kontrairaultza saiakera egon zen Hungariar Errepublika Herrikoiean. DDRn, ordea, oraingo honetan Estatu-Seguritasuneko aparatuak (‘Stasi’ germanieraz) hainbat talde desegin eta kolpe kontrairaultzailea ekidin zuen.

### Varsoviako Ituna

1949. urtean NATO sortu zen mendebaldeko Estatuaren aliantza militar gisa. Bere helburua Eremu Sozialistaren, behargin-mugimendu iraultzailearen eta nazio-askapen mugimenduen aurka borrokatzea zen. Baina bazeukan beste helburu bat, AEBek gainontzeko mendebaldeko potentzia inperialistak menpean ipintzea, hain zuzen ere. Honek ‘gerra hotzari’ hasiera eman zion.

1950ean BRDren bermilitarizazioa hasi zen: AEBen zuzendaritzapean, 350.000 soldaduko ejertzitua sortu zuten. SEDk Alemania mendebaldeko alderdi (KPD, SPD) eta sindikatuekin eztabaidatu zuen honen aurkako ekintza-batasuna lortzeko. Honen ondorioz bermilitarizazioaren aurkako eta batasunaren aldeko herri-mugimendua sortu zen, nazioartean ere oihartzuna izan zuenak (batez ere Italian eta Frantzia). Mugimendu honek Estatu burgesaren errepresioa jasan zuen.

1951ean egindako plebisituan, DDRko biztanleriaren gehiengo zabalaz gain, oztopoen eta jazarpenaren gaintik, BRDeke 6 milioi hiritarren babesak jaso zuen. Alabaina, eskuineko buruzagi sozialdemokratek ekintza-batasuna zapuztu zuten germaniar burgesia inperialistaren politika antinazionala babestuz.

1952an DDRk ESSBk egindako bake-proposamena bere egin zuen: Estatu batua eta demokratikoa, non germaniar herriak erabakiko zuen sistema soziala eta politikoa, eta ejertzito propioa izan zezakeena, baina aliantza militar baten parte izan gabe. Mendebaldeko potentzia inperialistek proposamena baztertu zuten eta, haien tropak mugagabeki mantentzeaz gain, BRD NATO n sartzea prestatzen hasi ziren (jada bere sorkuntzatik ezkutuan planeatutako zerbaite zena).

Era honetan, 1955ko maiatzean BRD NATOko kide izatera pasa zen, 500.000 soldaduekin. Bere ejertzitoaren aginte-postu guztiak Ejertzito naziaren jeneral ohiek bete zituzten, gerora NATOko aginte militarrean egongo zirenak.

Honen aurrean, Poloniako hiriburuan bildutako 8 Estatu sozialistetako (ESSB, Albania, Polonia, Txekoslovakia, Bulgaria, Errumania, Hungaria, DDR) ordezkariak 'Adiskidetasun, Lankidetzeta eta Elkarrekiko Sorospenerako Ituna' (edo Varsoviako Ituna) sinatu zuten. Itun honetan agintea ESSBri zegokion, ejertzito handiena zuenak. Honen helburua, hasiera batean, Eremu Sozialista inperialismoaz babestea zen (sozialinperialismo errusiarraren tresna bihurtu bazen ere).

1956. urtean, inperialismoaren jarrera erasokorraren aurrean eta DDRk bere Varsoviako Ituneko egitekoak bete ahal izateko, Ejertzito Nazional Herrikoa sortu zen. Ejertzito honetako kideak, 150.000 inguru, behargin-klasekoak eta nekazari langileak ziren. Buruzagiak, faxismoaren aurkako borrokan trebatutakoak.

DDRk, Varsoviako Itunaren partaideen babesarekin, armagabetzerako, arma nuklearrak debekatzeko eta Europarako segurtasun-plan bat eratzeko proposamen ugari luzatu zizkion BRDri, baina honek (eta NATOk), behin eta berriro baztertu zituen.

## **Berlineko Harresia**

1960ko udazkenean BRDk DDRrekin zituen akordio ekonomiko guztiak eten zituen eta boikotarekin mehatxatu zuten. Atzera egin behar izan bazuten ere, honek arazo larriak eragin zituen bere ekonomian. Gainera, BRDeko eta mendebaldeko Berlineko hedabideek intoxikazio-kanpaina antikomunista berri bat abiarazi zuten, "altxamendu herrikoi" bat iragartzen zuenak, mendebaldeko Estatuak babestu beharko zutena.

DDR odolusteko intentzioarekin, era argian adierazi zuten bezala, espezialisten eta gazteen eroskeria areagotu zuten, BRDeko giza-trafikorako erakundeek mendebaldeko Berlineko muga irekia honetarako erabiliz. Muga hau irekita mantentzen zen Berlin desmilitarizatu bat lortzeko akordioari atea ez ixteagatik, baina BRDren eta NATOren jarrera ezkorrak, hiria zubi-buru gisa erabiltzen zutenak, ezinezko bilakatu zuen. Urte amaieran BRDeko tropek DDRren eta beste Estatu sozialisten aurkako 'tximista-gerra' entseatu zuten.

1961ko abuztuan BRDeko Gobernuak "X Egunerako" plana zehatz-mehatz aurkeztu zuen: DDR indarrez hartzea, enpresa publikoak germaniar monopolioen artean banatzea, kooperatibak disolbatzea eta lurrak eta ondasunak lurjabe handiei bueltatzea. Honekin batera, Europa mendebaldeko NATOko tropak alarma-egoeran ipini zituzten.

Egoera larri honen aurrean, Varsoviako Ituneko partaideak Moskun bildu ziren eta DDRko Gobernuari proposatu zioten mendebaldeko Berlin inguruan beharrezko neurriak ezartzea Eremu Sozialista babesteko. Ganbera Herrikoiak onartu eta gero, 'Babes-Harresi Antifaxista' (edo Berlineko Harresia) eraikitzea erabaki zen.

Abuztuaren 12tik 13rako gauean, potentzia inperialisten zerbitzu sekretuak ezustean harrapatuz, Polizia Herrikoiak, Borroka Taldeek eta Ejertzito Nazional Herrikoiak, ESSBko tropekin batera, DDRren mugak babestu zituzten. Beharginekin batera mendebaldeko Berlin inguratzen zuen harresia eraikitzen hasi ziren, hurrengo hilabeteetan amaituko zutena. Honela DDRren (eta Varsoviako Itunaren) mugak arrakastaz defendatu ahal izan zituzten.

DDRko mugak ziurtatzeak honen ekonomia onbideratzea ekarri zuen. Hala ere, mendebaldeko potentzia inperialistetako zerbitzu sekretuek espioien eta iheslarien igarotze ilegalak antolatzen jarraitu zuten. Muga-goardien aurkako atentatuak ere egin zituzten. Ia 30 urteetan, goardiek soilik 68 aldiz erabili zituzten haien armak.

# KAPITALISMOAREN BERREZARPEN PROZESUA

1956an bigarren bosturteko plana hasi zen lehenengoaren ildotik. Gainera, DDRk enpresa pribatuetako partaidetzak erosten hasi zen, Estatu-kapitalismoaren bidez etorkizunean ekonomiaren sektore sozialistan eransteko. Artisauen kooperatibizazioa sustatu zen baita ere. Zeregin hauetan alderdi demokratiko burgesetako ordezkariak lan garrantzitsua egin zuten.

Baina 1958. urtean enpresen eta zuzendarien eskumenak handitu ziren, eta zuzendaritza zentraleko enpresentzat 74 “elkarte” sortu zituzten, enpresak (edo enpresa multzoak) unitate ekonomiko gisa kudeatzen zituztenak. Guzti honek planifikazioa higatu zuen.

## Merkatu-“sozialismoa”

1957. urtean ESSBean Khrustxov-ek bigarren Estatu-kolpea eman zuen SBAKren zuzendaritzaren gehiengoa kanporatuz. 1960an egindako Alderdi Komunista eta Beharginen biltzarrean, berrikustzaile eskuindarrek Eremu Sozialistan haien ildoak ezarri zuten (Albanian eta Txinan izan ezik).

Honek ESSBeko mota berriko burgesiaren ordezkariak asmatutako “merkatu-sozialismoaren” teoriak gainontzeko herrialdeetan ezartzen hasia ekarri zuen, kapitalismoaren berrezarpen prozesua abiarazteko. DDRn ere prozesu hau eman zen: enpresak haien ekoizpena merkatura begira antolatzen hasi ziren, kalkulu ekonomikoa balioaren legearen arabera (prezioak, kredituak, interesak...) egiten zuten eta irabazia enpresen errentagarritasun-irizpide gisa ipini zuten. “Hobarien” sistema ere ezarri zuten, enpresetako zuzendariak etekina ateratzeko.

1964. urtean 80 enpresa-elkarte neurri ekonomiko hauen arabera funtzionatzen hasi ziren, eta beren adarreko zuzendaritza-atal ekonomiko bihurtu zituzten. Enpresa hauek ekoizpen-prozesu beraren parte ziren beste adar batzuetakoekin konbinatuak sortzen joan ziren. Ondorioz ekonomiaren sektore sozialistak bere izaera galdu eta Estatu-kapitalismo monopolista bihurtu zen.

Nekazal kooperatibei ekoizpen-baliabideen salmenta baimendu zuten baita ere, merkantzien zirkulazioa, eta ondorioz balioaren legearen ekite-eremua, handituz. Esan beharra dago kooperatibak disolbatzen joan ordez (ESSBean gertatu bezala), elkarte interkooperatiboetan bildu zituztela, lurra baliabide industrialekin lantzea ahalbidetu zuenak. Elkarte hauek lur erabilgarriaren %60 landatzen zuten. Honi esker DDRk elikagaien autohornidura lortu zuen.

1966an Ekonomia Nazionaleko Batzordea desegin eta adar industrialetako ministerioak sortu zituzten, planifikazio ekonomiko zentralizatua are gehiago higituz eta merkatuaren bat-batekotasunaren eskuetan utziz, krisiak eta desproporzio handiagoak ekarri zituenak.

1968ko Konstituzio berrian, plebiszitu bidez onartutakoa eta zeinen zuzenketan ia gizarte osoak hartu zuen parte, etiketa sozialista zuten ekoizpen-harreman burgesen berrezarpen hau legeztatu zen.

## **Nazioarteko lanaren banaketa “sozialista”**

ESSBean abiarazitako kapitalismoaren berrezarpenak kanpo-politikan eragin zuen, barne-politikaren luzapena denez gero, eta sozialinperialismo moduko bat eman zuen. Honen ondorioz Eremu Sozialistako gainontzeko herrialdeetan ESSB sozialinperialistaren Estatu-kapitalismo monopolistarentzat onuragarriak ziren ekonomiak eratzen hasi ziren.

1962. urteko ekainean COMECONeko kideek egindako bileran “nazioarteko lanaren banaketa sozialistaren printzipioak” onartu ziren. Hauen helburua sozialinperialismoari justifikazio teorikoa ematea zen, nazioen arteko berdintasuna (ekonomikoa ere) ordeztu kapitalismo inperialistak nazioartean ezarritako desberdinkeria mantentzea (edo berria eratzea) bilatzen zuenak.

DDRko kasuan, haiek zuten lehengaien beharraz baliatu ziren mendekotasun ekonomikoa irauarazteko. Handik aurrera “planak” hein handi batean ESSBeko ekonomiaren beharren arabera izatera igaro ziren, eta harentzat baliagarriak ziren adar ekonomikoak garatu zituzten. Aurrerago, ekonomien “integrazio sozialistak” guzti hau areagotu zuen, eta ESSBeko krisi kapitalistek biderkatuta eragiten zieten.

Mendekotasun hau politikoa ere bazen. Hain zen handia, ezen 1968an sozialinperialistek sustatutako “sozialismorako (kapitalismorako egiatan) bide nazionalen” ondorioz emandako Txekoslovakiako altxamendu sozialdemokrataren zanpaketan parte hartu zutela DDRko espezialista militarrek (Albania Sozialistak uko egin eta Varsoviako Ituna utzi zuen).

## **Gizarte “sozialista aurreratua”**

1972. urtean DDRko Gobernuak enpresa pribatuak, Estatuaren partaidetza zuten enpresak eta artisau-kooperatibak publiko bihurtzea erabaki zuen, honetarako osorik erosiz. Baina gogoratu beharra dago hauek jada Estatu-kapitalismo monopolista izatera igarotzen zirela, unitate ekonomiko gisa funtzionatzen zutela, merkatuentzat ekoizten zutela eta errentagarritasunaren irizpidea irabazia zela. Gainera, enpresari ohien %85 haietako zuzendari izaten jarraitu zuen.

1973an herrialde inperialistetakako petrolioaren krisiak gogor eragin zion DDRri, batez ere COMECONean ESSBk prezioak mundu-merkatura urtero, eta ez bost urtero, parekatzea inposatu zuenean: 1970ean 14 errublo ordaintzen zuten petrolio tona bakoitzeko eta 1982an 100 errublo, aurrerago 172ra iritsi zelarik (DDRk petrolioaren %90 ESSBri erosten zion).

Inperialismo mendebaldarrak abiarazitako arma-lasterketak eta ESSBk, honi aurre egiteko eta bere krisi-egoerari aterabidea emateko, Brezhnev-en agintepean gauzatutako ekonomiaren militarizazioak DDRn eragiten zuen: ekonomien “integrazio sozialistak” hainbat adar ESSBko industria militarreara azpiratuta egotea eta gizartearen beste beharretara ez bideratzea zekarren. Gainera, DDRn zeuden ESSBko tropen gastuak haiek ordaindu behar zituzten.

Handik aurrera, “sozialismoaren” aurrerapena ekoizpen-indarren garapen soilean eta lanaren razionalizazioan ipini zuten. Honetarako berrikuntza zientifiko-teknikoak eta langileen emulazio sozialista sustatu zuten. Hau arrakastaz lortu zuten, adibidez mikro-elektronikaren arloan. Hala ere, ez zuten lortu herrialde kapitalista industrializatueta lanaren produktibitate iristea.

# DDRren LORPEN SOZIALAK

DDRren Estatu gaineitura burges-berrikustzailean endekatu zen arren, 'Ongizate-Estatu' gisa inoiz egon den hoberenetarikoa izan zen, eta erdigune inperialista industrializatuan Sozialismoak lor dezakeena erakutsi zuen. Esan daiteke giza-eskubideak benetan betetzen zirela, eta ez soilik paperean. Lorpen hauek, gainera, mendebalde inperialistan langileriaren lorpenetan eragina izan zuten.

## Politika

DDRn hauteskundeak askeak eta sekretuak ziren. Udal-, eskualde-, probintzia- eta Ganbera Herrikoieko hauteskundeak egiten ziren. Parlamentuetan alderdiez gain (SED, CDU, LDPD, DBD, NDPD), masa-antolakundeek (FDGB, FDJ, DFD...) haien aulki propioak zituzten. Hautagaiak alderdiek eta masa-antolakundeek aukeratzen zituzten, baina lehenik beren lan-taldean onartu behar zituzten. Hauetara bete beharreko karguen heren bat baino gehiago aurkeztu behar ziren. Antolakuntza Hauteskunde-Batzordearen ardurapean zegoen, antolakunde guztietako ordezkariak eta hiritar independenteez osatutakoa. Antolakunde bakoitzak bere biltzarre eta hauteskundeak zituen, baita aldizkariak ere.

Honez gain, lantegietako demokrazia zegoen, non beharginek haien iritzia eman eta ekoizpen-auzien, lan-antolakuntzaren eta bizi-baldintzen inguruan erabakitzen zuten.

## Ekonomia

Germania ekialdeko lehen urteak oso gogorak izan ziren, gerraren, zatiketaren eta erreparazioen kostuen (1953an ESSBk barkatu zituenak) ondorioz. Halarik ere, denborarekin munduko lehen 10 potentzia industrialen artean kokatzea lortu zuen. Hau gainera beste nazioak ustiatu gabe lortu zuen (izatekotan alderantziz). 1946 eta 1979 artean bere industria-ekoizpena 23 aldiz handitu zen. DDRk 1976an ia 2,5 aldiz biderkatu zuen 1936ko Germania osoaren ekoizpen industrialak, hartan biztanleriaren laurden bat bizi zen arren. Bere Barne Produktu Gordina 7,4 aldiz biderkatu zen 1949tik 1979ra, 1987an munduko 20. postua lortuz.

## Lana

50. hamarkadaren hasieratik aurrera DDRn ez zen langabeziarik egon.

Hasierako urte gogorretan lanaldia 48 ordukoa zen eta astean 6 egun egiten zen lan. 1957an asteko lanorduak 45era jaitsi ziren, soldatak mantenduz. 1966an asteko lanegunak 5era murriztu ziren, bi astetik behin hasieran, beti geroago. Gainera urte amaierako sari bat gehitu zen, hileko soldataren %70 zena. 1976an asteko lanorduak 40ra jaitsi ziren.

Ekonomia hobetu ahala, soldatak ere igo egiten ziren. Gainera ez zegoen ia inflaziorik. Soldaten mailan desberdintasunak bazeuden ere, ez ziren oso handiak (gehienez bikoitza) eta behargin kualifikatuak ziren gehien kobratzen zutenak.



Urteko opor ordainduen kopurua ere igotzen joan zen (1973an gutxieneko egun kopurua 15etik 18ra igo zen, eta 1979an 21era). Oporrak hiriaren kanpoaldeko bigarren etxetxoan, DDRko aisialdi-lekuetan edo beste eskualdetan, Baltikoko oporlekuan zein Eremu Sozialistako beste herrialdeetan igaro zitezkeen.

Jubilazio-pentsio duinak ziurtatuta zeuden.

Emulazio sozialista, hau da, planifikatutakoa gainditzeko lan gehigarria, banaka edo taldeka, konstante bat izan zen DDRko historian. Honek ekoizpena areagotzeaz gain elkartasuna sustatzen zuen langileen artean, baita norgehiagoka ere. Lan gehigarria behar bezala ordainduta zegoen orokorrean.

## **Etxebizitza**

DDRn etxebizitzarako eskubide unibertsala betetzen zen, etxegabetzeak debekatuta zeuden eta ez zegoen etxerik gabeko pertsonarik.

Alokairuak soldataren %2 eta %8 tartekoak ziren, beraz ez zegoen lukurreriarik etxebizitzarekin.

70. hamarkadan etxebizitza berriak eraikitzeke edo zaharrak berritzeke ordura arteko programarik handiena onartu zen (hamarkadaren hasieran 6,2 milioi etxebizitza zeuden). Honetarako errenta nazionalaren %10 bideratu zen. 1971tik 1988ra 2 milioi 800 mila etxebizitza banatu ziren, gehienak berriak. Etxebizitza berrien 2/3 behargin-klaseko familiei eman zitzaizkien, ume asko zituztenak lehentasuna izanik. Honela bizi-baldintzak hobetu ziren 8 milioi inguru pertsonentzat. Etxebizitza kopurua 1000 biztanleko mendebaldeko potentzia inperialistena baina altuagoa zen.

Etxebizitzekin batera beharrezko haurtzaindegiak, eskolak, biltokiak, jatetxeak, hornikuntza-guneak, ospitaleak eta abar. eraikitzen ziren. Eraikuntzan industrialki aurrefabrikatutako materialak erabiltzen zituzten.

1949tik 1989ra etxebizitzaren gainazal habitagarria pertsonako 12 m<sup>2</sup>-tik 27 m<sup>2</sup>-ra pasa zen.

## **Hezkuntza**

DDRn hezkuntza dohakoa eta kalitatezkoa zen, eta bokazio humanista, antifaxista eta sozialista zuen.

3tik 6 urtetara haurrentzako eskolak zeuden. Han ongi zaintzen eta elikatzen zituzten. 1989 arte umeen %95 hauetara joaten zen.

Hortik aurrera nahitaezko hezkuntza hasten zen. Lehenik 8 urtekoa zen, eta 1959an 10 urtekoa izatera igaro zen, ahalegin handiak eskatu zituenak. Hirietan 10 urte kostatu zitzairen hau ezartzea, eta landa-eremuan 15 (herri askotan oraindik klase bakarria zegoelako kurtsu guztientzat).

16 urtetik aurrera, kualifikazio profesionala lortzeko ikasketak 2-3 urtekoak ziren. Gero bazeukaten goi-mailako zentroetara joateko aukera.

Ikasle unibertsitarioek hilero ordain bat zuten, liburuak eta ostatua ordaintzeko (bigarren hezkuntzakoek ere, baina txikiagoa). Ikasleek seme-alabak bazituzten, ordain hori handitu egiten zen.

Ikasketen azken urtean ikasle guztiek lanpostu bat ziurtatuta zuten, enpresak horretara behartuta zeudelako.

Sindikatuak ikasleek oporrak izateaz arduratzen ziren, eta urtero milioi 1 joaten ziren horretarako eraikitako 3.000 lekuetara.

Desgaitasun fisiko edo psikikoak zituzten umeentzat (itsuak, gorrak...) ere eskola bereziak zituzten, instalazio mediko eta pedagogiko modernoekin. 1979tik 1989ra honelako 12 eraiki ziren.

DDRn 7 unibertsitate, 54 goi-mailako eskola eta 250 eskola tekniko zeuden.

## Zientzia

DDRn garrantzia handia eman zitzaion aurrerapen zientifiko-teknikoari. 1957an Ikerkuntza Kontseilua sortu zen, Ministro-Batzordeari atxikituta. Honek Sobiet-Batasuneko teknikaren ezarpenaz ere arduratzen zen.

1958. urtean Biharko Teknikarien Azoka egiten hasi zen urtero. 20 urte beranduago, 15.000 berrikuntza aurkeztu ziren. 1970ean 661.000 berritzaile zeuden, eta 1973an 1,2 milioi. Garai honetan 6.000 berrikuntza edo hobetze ezarri ziren ekoizpenean. Berritzaileen %60 inguru ekoizpeneko beharginak ziren.

1974. urtean DDRko Zientzien Akademiaren eta Irakaskuntza-Ministerioaren arteko ikerkuntzarako proiektua onartu zen, SEDren ekimenez. Zientzien Akademiaren 16.000 kolaboratzaileek (Errepublikako ikertzaileen %10) haien ahaleginak areagotu zituzten aurrerapen zientifiko-teknikorako.

1978. urtean DDRko lehen germaniar kosmonautak espazioa bisitatu zuen, ESSBren 'Interkosmos' programaren baitan.

## Osasungintza

Osasungintza unibertsala eta kalitatezkoa zen DDRn.

Hiritar bakoitzari aseguru baten babesa ematen zitzaion eta mediku-arreta, hospitaleetan egonaldiak, sendatzeko tratamenduaren zerbitzuaren erabilera, hala nola agindutako botikak dohakoak ziren.

Pertsonal medikuak zuzendutako ezkontzazko, familiazko eta sexuko aholkularitza zegoen, non psikologo eta abokatuek borondatez egiten zuten lan.

Emakume haurdunentzat aholkularitza-bulego sarea zegoen, sostengu mediku, legal eta sozialekoa. Adin ugalkorrean zeuden emakumeen ia %50ak metodo antisorgailuak erabiltzen zituen medikuen kontrolpean.

Lantegietan ere medikuak zeuden.

## Kultura

Erregimen naziaren jazarpenaren ondorioz erbestean zeuden idazle eta artista asko Germanian ekialdera itzuli ziren: Bertol Brecht, Willi Bredel... Artista hauek, eta berriek ere, alor desberdinetan garatu zuten haien lana: literaturan, arte plastikotan, margolaritzan... baita zineman ere. Hauetan kontzientzia humanista, zaharraren eta berriaren arteko borroka, antiinperialismoa, abertzaletasun sozialista eta internazionalismo proletarioa bezalako gaiak jorratzen ziren.

1945. urtean DDRko Kultura-Elkartea (KB germanieraz) sortu zen: kulturaz bere adiera osoan arduratzen zen eta hainbat atal zituen. Bere helburua ordura arte zapaldua egon zen kultura demokratiko eta sozialista nagusi bilakatzea zen, ideologia atzerakoia baztertuz. Herrialdeko baita nazioarteko artisten lanak ezagutarazteaz arduratzen zen. Antolakunde kultural zabalena zen eta sortzaileez gain (idazleak, margolariak, musikariak...) biztanleriaren geruza zabalak biltzen zituen (1985ean 260.000 kide zituen). KBk aulki propioak zituen Ganbera Herrikoiean.

DDRn 60 antzoki zeuden (munduko kopururik handiena biztanleko), 110 eszenatoki kudeatzen zituztenak, eta ia 100 orkestra. Urtero 12 milioi joaten ziren antzokietara, eta 3 milioi kontzertuetara. Museo asko ere bazeuden eta edonork bisitatu ahal zituen, Estatuak dirulaguntza ematen baitzuen sarrerentzat. Estatuaren 13.000 liburutegi eta sindikatuen 5.000 zeuden. Munduko liburu-ekoizpen handienetakoa bazuen ere, ezin zuten ase zegoen eskaria. Gauza bera gertatzen zen musika-diskoekin.

Bizitza kulturala ikaragarri hazi zen DDRn: 1,3 milioi pertsona inguruk jarduera artistikoak egiten zituen bere denbora librean. Milioi erdi baino gehiago 21.000 taldeetan antolatzen zen: abesbatzak, dantza-musikako bandak, idazleen, zinegileen eta arte plastikoen zirkuluak... Urtero egiten ziren Behargin-Jaialdiak langileen ekitaldi kultural garrantzitsuenak bilakatu ziren.

## Kirola

60ko hamarkadan kirolak haziera nabarmena izan zuen DDRn milioika langileen parte-hartzearekin. 1966an lehen Gazte-Espartakiadak egin ziren, non 1,8 milioi haur eta gazteek hartu zuten parte.

DDRko kirolariak arrakasta aipagarriak lortu zituzten nazioarteko mailan atletismoan, igeriketan, arraunean, txirrindularitzan, eskian, boxeoa, halterofilian eta patinaje artistikoa bezalako beste diziplinetan.

Hala ere, BRDk hauek marjinatzen tematu zen nazioarteko lehiaketetan, haiek germaniar guztiak ordezkatzeko zituztela aditzera emateko. 1968an, ordea, Komite Olinpikoak DDR eskubide guztiakin onartu zuen. Urte horretan bertan, Mexikon egin ziren Udako Joku Olinpikoetan DDRk 3. postua lortu zuen dominetan AEB eta ESSBren atzetik.

Kirolik jokatuena futbola zen. 1976an DDRko futbol selekzioak Joku Olinpikoak irabazi zituen Kanadan.

Enpresa askotan ere kiroldegiak zeuden, baita klubak ere.

## Emakumea

1946. urtea baino lehen Germanian emakumeek gizonak baino %40 gutxiago kobratzen zuten. 1949ko DDRko Konstituzioak lan berdinatik ordain berdina ezarri eta bete egin zen.

1950an emakumeen %50 soilik egiten zuten lan etxetik kanpo, 1989an %95 ingurukoa zen bitartean (BRDean %50 izaten jarraitzen zuten).

1984 amaierarako DDRko emakume langileen %80,3ak kualifikazio profesional osoa zuten. Emakumeen %57 behargin kualifikatuak ziren eta %21,9k goi-mailako kualifikazio zuten.

Emakumeen hezkuntza-maila altuak, haien burujabetza ekonomikoak eta kontzientzia jasoak, dibortzioek gora egitea ekarri zuten. Ez zegoen bereizkeriarik emakume dibortziatu edo ama ezkongabeekiko.

Konstituzioak etxeko lanak senar-emazteen ardura zirela ezarri arren, lan gehiena emakumeek egiten zuten. Horregatik 1988an emakume langileen %27k lanegun murriztua hartu zuten, soldata bera mantenduz. Edozein unean lanegun arrunta har zezaketen berriro.

Amatasun-baja, jaiotzaren aurrekoa eta ostekoa, 18 astekoa zen 1979 arte eta orduan 26 astera luzatu zen. Aldi honetan emakume langileek soldata netoaren batazbestekoari zegokien onura materiala jasotzen zuten. Horretaz gain amak lanera ez joateko eskubidea zuten umeak urte 1 bete arte. Denbora horretan eta bigarren umetik aurrera, 1976tik bere soldata netoaren batazbestekoaren %60 jasotzen zuten. Haurdunaldiaren hasieratik aipatutako aldiaren amaierara arte, enpresak ezin zuten emakumea kaleratu eta aldi hori bukatu ostean berriro enplegatzeke betebeharra zuten.

1972. urtean abortua despenalizatu zen DDRn (BRDean 1976an izan zen, eta bakarrik muturreko kasuetan). Haurdunaldia etetea lehen 12 astetan erabaki propioz soilik zen posible eta ospitaleetan egin behar zen. Hau eta gero jaiotzek gora egin zuten eta amen eta jaioberrien heriotzak gutxitu ziren.

## Sexualitatea

DDRn harreman sexualak osasuntsuagoak, ugariagoak eta kalitate hobegokoak ziren (orgasmoen bikoitza BRDean baino), lehenago hasten zituzten izaten (15 urterekin) eta ia guztiek izaten zituzten ezkondu baino lehen (%99). Emakumearen ahalduntzeak ere izan zuten zerikusia honekin.

DDRko eskoletan hezkuntza sexuala eman zen hasieratik, telebistan masturbazioari buruz hitz egiten zen eta gurasoei haien seme-alaben sexualitatea ez oztopatzeko gomendatzen zitzaien. BRDean, aitzitik, 60ko hamarkadaren erdialdean hasi zuten eta oso urria zen. DDRn pornografia debekatuta zegoen (BRDean ez bezala), baina bazegoen etxean egindako pornoaren elkar trukitzea.

Prostituzioa ezabatzen saiatu ziren DDRn, putetxeak debekatu eta lanaren eta sorospen sozialaren bidez birgizartzeratzea sustatu. 1968. urtean, ordea, debekatuta izan zen kartzela-zigorpean prostituentzat, proxenetentzat eta bezeroentzat ere, eta kaleetatik desagertu zen.

1968ean ere DDRk homosexualitatea despenalizatu zuten, BRDean baino urtebete lehenago. Gainera, ordura arteko errepresioa askoz ere handiagoa izan zen azkeneko honetan DDRn baino: 300 kasu 30.000ren aurka (BRDean kastrazioa bezalako praktikak eraman ziren aurrera). Hala ere,

desberdintasuna mantendu zen onespén-adinaren inguruan: 14 urtekoa heterosexualentzat eta 18 urtekoa homosexualentzat. Baina 'gay'-mugimenduaren borrokari esker 1987an parekidetasuna lortu zen onespén-adinean ere. BRDean hau 1994 arte mantendu zen (18 eta 21 urtekoa zen hurrenez hurren).

70ko hamarkadan nudismoak gora egin zuen DDRko hondartza eta lakuetan. Askotan familian egiten zen eta ez zeukan kutsu sexualik.

## **Internazionalismoa**

DDRk Eremu Sozialistako herrialdeekin harremanak indartu eta Estatu inperialistetako mugimendu iraultzaileak babesteaz gain, bere nazioarteko elkartasuna Europatik haratago eraman zuen.

1950. urtean AEBetako inperialistek, NBEaren izenean, Korea inbaditu zuten komunistek herrialde osoa askatzea ekiditeko. SEDren ekimenez DDRn korear herriaren aldeko elkartasuna antolatu zen, ordura arte ikusi zen handiena.

1965. urtean inperialista iparamerikarrek, frantziarrek alde egin ostean, haien armada bidali zuten Vietnam okupatzera. DDRn vietnamdar herriaren aldeko elkartasuna antolatu zen, bere historiako handiena: dirulaguntzak, manifestazioak... 1973an komunistek inperialistak garaitu eta gero, DDRko langileek elkartasuna mantendu zuten eta honela laguntza bikoiztu zen 1974tik 1975ra.

1973. urtean Pinochet militarrek, AEBen laguntzarekin, Allende-ren Gobernuaren aurkako Estatu-kolpea eman zuen Txilen. Honen ostean Junta faxistak aurkarien eta batez ere komunisten sarraskiak abiarazi zituzten. DDRn Txileko Herri-Batasunaren 2.500 militante ingururi eman zieten aterpea.

DDRko elkartasuna jaso zuten ere Hegoafrikako 'apartheid' arrazista pairatzen zuen herriak, Afrikako kolonien nazio-askapen mugimenduek eta Estatu sionistaren okupazioaren aurka borrokatzen ziren herriek, bereziki Palestinako arabiar herriak, bere Estatua izateko eskubidea defendatuz. BRDk, aitzitik, inperialistak eta kolonialistak babestu zituen.

# KONTRAIRAULTZA ETA SUNTSIPENA

1985. urtean Gorbatxov-ek, SBAK berrikustzailearen Idazkari Orokor berriak, ‘Perestroika’ (“berregituraketa” errusieraz) abiarazi zuen. Honen ezkutuko helburua ESSBeko gainegitura suntsitzea zen, mota berriko burgesiarentzat oztopoa bilakatu zena, kapitalismo gordina bere forma inperialistan guztiz berrezartzeko.

Gorbatxov-ek ezarritako “enpresen autokudeaketak”, planifikazio ekonomikoa erabat baztertzen zuenak, krisi ekonomikoa eragiteaz gain, arazo larriak sortu zituen DDRn ere. Arlo ideologikoan, Gorbatxov ‘Glasnot’ (“irekialdia” errusieraz) aldarrikatzen hasi zen propaganda burgesa argi eta garbi hedatzeko.

SEDko zuzendaritzak, ESSBeko Perestroika publikoki agurtu bazuen ere, ez zeukan “berrikuntza” hori DDRn ezartzeko intentziorik, eta hau garesti ordaindu zuen.

## SEDren likidazioa

1989ko urrian Erich Honecker-ek, 1971 urtetik SEDko Idazkari Orokorra eta sozialinperialista errusiarrei beti leial mantendu zenak, bere gaixotasuna aitzakitzat hartuz dimititu zuen. Bere tokia Perestroikaren aldeko gizon batek hartu zuen, Egon Krenz-ek. Ondoren, Moskutik zetozen “gomendioei” jarraituz, SEDko ‘Politburo’-ak (alderdiko zuzendaritza gorenak) blokean dimititu zuen.

Hau eta gero, alderdiaren ezohiko biltzarrea deitu zen abendurako. Orduan SEDk 2,3 milioi militante zituen. Bertan Gorbatxov-en aldekoek Sozialismo Demokratikoaren Alderdia (PDS germanieraz) izenarekin birsortu zuten.

PDSak SEDko aurreko zuzendaritzari “gaizkile” izatea leporatu zion eta Fiskaltzak bere aurkako errepresioa hasi zuen. Era honetan, Honecker eta beste kide batzuk atxilotuak eta kartzeleratuak izan ziren DDRn bertan.

## Harresiaren erorketa

Germaniako Elizak (biztanleriaren gehiengoa kristau luteranoa zen), hasieran ez zuen DDR aintzatesten, eta BRDekeo bermilitarizazio ere babestu zuen. 70eko hamarkadan DDRrekin harreman adeitsua hastea lortu zen, “Eliza Sozialismoan” gisa. Baina Perestroikaren hasierarekin hau aldatu zen: tenpluak oposizio antikomunistaren biltoki bilakatu ziren eta manifestazio askotako buruak apaizak ziren.

1989. urteko udazkenean DDRren aurkako manifestazioak ugartu ziren, Perestroikaren aldeko intelektualek deituta. Manifestarien lelo nagusia mendebaldeko herrialdeetara “bidaiatzeko eskubidea” zen. DDRk zailtasunak zituen eskaera hau betetzeko, Estatu inperialistek ez baitzuten bere moneta onartzen, eta BRDekeo dibisak behar zituzten, oso garestiak zirenak. Halere, bazegoen BRDera legalki igarotzen zen jendea, turismoa egiteko edo senitartekoak bisitatzeko (urtero 5 eta 7 milioi artean). Hungariak eta Txekoslovakiak haien mugak ireki eta gero (BRDetik dirua jaso

ostean eta Gorbatxov-en baimenarekin), bertan turismoa egiten zeuden DDRko hiritar asko Austriara eta mendebaldeko Germaniara igaro ziren.

Azaroan, DDRko Gobernuak dimititu eta bi egunetara, Egon Krenz-ek, Moskutik bueltatu ondoren, hurrengo egunean muga guztiak irekitzea agindu zuen. BRD eta Berlin mendebaldeko irratiek hau iragartzerakoan jende asko Berlineko Harresiaren inguruan bildu zen sarbideak irekitzea eskatuz. Haien buruzagien agindurik jasotzen ez zutenez, azkenean muga-goardiek sarbideak ireki zituzten. Nahasmenduaren erdian ale endekatuek harresiko zatiak bota zituzten Berlin mendebaldeko autoritateen eta hiritarren laguntzaz.

## **DDRren anexioa**

1990. urteko martxoan hauteskundeak egin ziren DDRn. Hauetan CDU atera zen garaile, mendebaldeko Germaniatik jasotako diruari esker eta SPD PDStik kanpo aurkeztearen ondorioz. Orduan DDR BRDri batzeko negoziazioak hasi ziren ofizialki, Postdameko akordioak sinatutako 4 potentzien eta 2 Estatu germaniarren artean. Gorbatxov-en traizioa DDRri bikoitza izan zen: alde batetik, jada negoziatuta zeukan AEB eta BRDrekin zein izango ziren “batzerako” baldintzak, eta bestetik, une horretan ESSBk DDRrekin zituen itun guztiak alde batera utzi zituen.

Honecker-ek Gorbatxov-i gutun bat idatzi zion, negoziazio horietan DDRko autoritateek Varsoviako Itunarekiko haien eginbeharrak betetzen zituztela eta ondorioz ezin zirela epaituak izan adierazteko eskatuz, baina ez zuen erantzunik jaso. Gainera, negoziazioetan erabakitako baldintzak gerora ez zituzten bete BRDekeko autoritateek, adibidez nekazal erreformak desjabetutako lurak nekazariei ez kentzea, hauek lurjabe zaharrei bueltatuz.

‘2+4’ ituna Moskun irailean sinatu ostean BRDk DDR anexionatu zuen eta bere legedia ezarri zuen Germania ekialdean.

## **Germania inperialistaren mendekua**

Anexioa eta gero ‘Treuhandanstalt’-ak, DDRko jabetza “kudeatzeko” erakundeak, enpresa publikoen pribatizazioari ekin zion. Hauen %85 germaniar monopolioen jabetza izatera igaro ziren, %10 atzerriko inperialistena eta %5 Estatu burgesarena. Lantegi eta ondasun asko prezio barregarrietan saldu ziren. Etxebizitak ere artekarien esku geratu ziren.

Bankuak ere mendebaldekoen jabetza izatera igaro ziren, eta egun batetik bestera moneta erreforma burutu zuten, jende askok haien aurrezkiak galdu zituztelarik.

Zientzilarien %12 bakarrik mantendu zuen bere lana. Unibertsitateetan langileen %80 kaleratu zituzten. 1,5 milioi pertsonak arrazoi politikoengatik debekatuta zuten administrazio publikoan lan egitea eta bizitza sozialetik marginatu zituzten. Milioi 1 hiritarrek ez zituzten jaso zegozkien jubilazio-pentsioak: askori pensio murriztuak eman zizkieten, eta beste batzuei ukatu (SSetako ofizialek ordea osorik jasotzen zituzten).

Landa-eremuko lurak (ereingarrien 356.000 hektarea eta basoen 40.000) nekazal kooperatibei kendu eta lurjabe zaharrei edo haien ondorengoei eman zieten eta %12 landatu gabe geratu zen. Nekazaritzan zeuden 800.000 lanpostuetatik 3/4 izan ziren suntsituak.

BRDk aurrera eramandako Germania ekialdeko desindustrializazioak, mendebaldeko industriaren kompetentziagatik egindakoa, lanpostuen %50 suntsitu zuen, 4,5 milioi inguru. Germania osoko langabetuen kopurua 5 milioira igo zen: langabezia ekialdean ia %20koa zen, hau da, 5etik 1ekoa, mendebaldean %10ekoa zen bitartean.

Alokairuak garestitu ziren, bider 3 eta bider 10 artean. Soldatak, mendebaldekoekin alderatuta, %60-%70ekoak ziren ordea. Prestazio sozial ugari desagertu ziren. Ekialdean ezezaguna zen miseria bueltatu zen: umeen %22 txiroak ziren, eta mendebaldean %12. Emakumea etxean zokoratu izan zen berriro eta prostituzioa bueltatu zen. Guzti honen ondorioz jaiotzak ikaragarri jaitsi ziren eta emigrazioa handitu zen.

Elkartasun soziala desagertu eta beldur existentziala bueltatzearekin batera, drogen gehiegizko kontsumoa eta delinkuentzia hedatu ziren. Neonazismoak, bere demagogiarekin, gora egin zuen Germania ekialdean Estatu burgesaren babespean.

BRDeke epaitegiek, gerra ostean naziak epaitzeari uko egin zioten berberak, DDRko Gobernuaren, funtzionarioen, legelarien eta muga-goardien aurkako prozesuak ireki zituzten (75.000 baino gehiago). DDR “zuzenbide ezako” Estatua zela joz, haien egitekoak betetzeagatik kondenatu eta espetxeratu zituzten haietariko asko. 1992an, Errusiar Federaziotik kanporatu izan eta gero, Honecker berriro izan zen atxilotua “hilketaren” akusaziopean eta Moabiteko espetxean sartu zuten, erregimen nazian egon zen kartzela bera. Azkenean, bere gaixotasuna zela eta (minbizia zuen), Txilen erbesteratu zen bere familiarekin, eta han zendu zen.

Germania osoa NATOko parte izatera pasa zen, nahiz eta ‘2+4’ akordioen arabera ezin dituen ekialdean tropak eduki. Orduetik hona Germania inperialistak, AEBen menpe, Jugoslaviako gerran parte hartu du (NATOk NBEren mandaturik gabe hasitakoa), Afganistanekoan, Libiakoan baita Siriakoan ere. Azken urteotan, Errusiar Federazioaren aurkako zeharkako gerra ekonomiko eta politikoan ere hartu du parte eta Ukrainako erregimen faxistari sostengu militarra eman dio honen aurkako gerran, kontraesan interinperialistak areagotuz.

## AMAIERA